

**Ebazpena: 94/2023**

**Espedientea: 25/2022**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentek eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

### **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea zeinek duen 2017ko ekitaldian BESAk (aurrerantzean, BESA) SBO jaunari ordaindutako lan-etekinengatik PFEZaren atxikipenak ordainarazteko eskumena. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 25/2022 espediente-zenbakiarekin.

### **AURREKARIAK**

**1.-** BESA enpresak Gipuzkoan du zerga-egoitza, eta pinturak, bernizak eta lakak fabrikatzea du jarduera nagusi.

**2.-** BESAk GFAn sartu zituen 2017ko ekitaldian egindako atxikipen guztiak.

**3.-** Dagozkion egiaztatze- eta ikertze-jarduketak egin ondoren, ZAEAk egiaztatu zuen SBO jaunak lana EAEn, lurralde erkidean eta atzerrian egin zuela 2017ko ekitaldian. Era berean, ZAEAk egiaztatu zuen ezen, langile horri esandako ekitaldian ordaindutako lan-etekinen gainean egindako atxikipenak GFAn sartu zituztela.

**4.-** ZAEAk atxikipen horiek itzultzeko eskatu zion GFARI, 2021eko apirilaren 16an, eta GFAk atzera bota egin zuen, 2021eko abenduaren 2an.

**5.-** 2022ko otsailaren 1ean, ZAEAk inhibizio-errekerimendua egin zion GFARI, eta GFAk atzera bota egin zuen 2022ko otsailaren 28an.

**6.-** 2022ko martxoaren 28an, ZAEAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta Ekonomia Itunaren eta abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan (aurrerantzean, EIABA) araututako prozedura arruntaren bidez izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da GFAk alegazioak egin eta dagozkion froga eta agiriak hilabeteko epean aurkeztu eta proposatzeko izapidea. Horrez gain, prozedurako interesdun guztiei eman zaie espedientearen berri, eta ZAEAk atzera egindakotzat jotzeko eskatu du izapide horretan.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen loturen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea».

(...))»

## 2-. Atzera egitea

ZAEAk, azken alegazioen izapidetan, eskaera bat aurkeztu zuen 25/2022 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat har dezaten, eta onartu zuen GFari dagokiola BESAk hartzaile jakin batzuei 2017ko ekitaldian egindako PFEZaren ondoriozko lan-atxikipenak ordainarazteko eskumena, kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan xedatutakoa, *ratione temporis* idazketa aplikagarrian. Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora galtzea eta, horrenbestez, artxibatzea ekarri du.

Atzera egitea prozedura amaitzeko modu gisa jasotzen da Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 84. artikuluan, zeina aplikagarria baita EIABaren 8. artikulua eginiko igorpena betez.

Ildo horretan, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatutako atzera egitea, ez baitago prozeduran hirugarren pertsona interesdunik, eta gatazkan sortutako auzia ez baita interes orokorrekoa, eta ez

baita komeni hura bideratzea definitu eta argitu dadin. Eta, ondorioz, ebazpen hau ematen da, APAPELen 21.1 artikuluan adierazitakoa aintzat hartuta.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

### **ERABAKITZEN DU**

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk atzera egitearen ondorioz prozeduraren xedea gerora galdu delako.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta BESARI.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.